Informa Dña Mirem Oyarbide del contenido de la reunión celebrada programa Ibañeta que supone el traspaso de las acciones de dicha sociedad a una nueva creada con el fin de mejorar la gestión del conjunto de residencias del grupo Amma.

El Ayuntamiento se da por enterado .

Viaje al Sahara.

Informa el Sr Oroz del contenido del viaje al Sahara realizado recientemente y de la posibilidad de incluir dentro de las iniciativas municipales al programa Tu Eliges, tu Decides de Caja Navarra la ayuda al Centro de Castro (Centro de Educación Especial de Asmara).

El Ayuntamiento previa declaración de urgencia acuerda por unanimidad incluir como proyecto municipal dentro el programa tu eliges tu decides de Caja Navarra la ayuda al Centro de Castro (Centro de Educación Especial de Asmara).

El Ayuntamiento se da por enterado.

Resultado subasta forestal

Informa el Sr Alcalde del resultado de la subasta forestal celebrada el día 30 de Octubre de 2.007 en el que los aprovechamientos valorados en 30.994,63€ fueron vendidos en la cantidad de 35.716 €.

El Ayuntamiento se da por enterado.

Adjudicación plan infraestructuras ganaderas 2.007

Informa Elsa Alcalde de la adjudicación a Mendi Lan de los trabajos incluidos en el plan de infraestructuras ganaderas de Auritz Burguete en la cantidad de 10.414,42 € y del estado de ejecución de los mismos.

El Ayuntamiento se da por enterado.

Servicio de Euskera

Informa el Sr Othegui de que se está estudiando la posibilidad de unificar un Servicio de Euskera para todo el Pirineo, con el fin de mejorar la gestión de dicho servicio.

El Ayuntamiento se da por enterado.

Servicio de Notaría

Informa el Sr Othegui de que el Notario de Aoiz ha mostrado su disposición a acudir a Burguete de forma regular precisando para ello de un local donde recibir al público.

El Ayuntamiento muestra su satisfacción con la propuesta acordando ponerse en contacto con la Notario de Aoiz para concretar el tema.

Exposición trajes Ingurutxo

El Ayuntamiento acuerda remitir un bando al vecindario informándole de que el Domingo de 12,00 a 14,00 horas se abrirá al público el Salón de Plenos a fin de que puedan ver los trajes del Ingurutxo de Auritz Burguete expuestos en dicho local.

Y sin más asuntos que tratar se levantó la sesión de lo que doy fe

Auritzen, 2007ko abenduaren 13an, 20:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratu ziren zinegotziak: M^a Roncesvalles Azanza Burusco a., Juan Manuel Azanza Burusco j., Alejandro Othegui Echeverria j., M^a Aranzazu Oyarbide Lapazaran a., Iker Oroz Garate j. eta Ignacio Irigaray Gil j. Bilkuraburu, alkatea, Jose Irigaray Gil j., izan zen eta idazkaria Pedro María Cenoz Iragui j.

1.- 2007ko URRIAREN 4an EGINDAKO BILKURAREN AKTAREN ONESPENA

Udalak erabaki du aho batez 2007ko urriaren 4an egindako bilkuraren akta onestea.

2.- 2007ko AZAROAREN 8an EGINDAKO BILKURAREN AKTAREN ONESPENA

Udalak erabaki du aho batez 2007ko azaroaren 8an egindako bilkuraren akta onestea.

3.- 2007ko URRIAREN 3tik ABENDUAREN 10a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENAK

Alkateak 2007ko urriaren 3tik abenduaren 10a arte eman dituen ebazpenei buruzko informazioa eman du.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

4.- BATZARRE ERAKUNDEAREN ORDENANTZAREN ONESPENA

Aurizko Udalak, 2007ko abuztuaren 9an, Batzarre Erakundea biziberritzeko eta haren funtzionamendua arautzeko Ordenantza onetsi zuen behin behinekoz. Ikusirik legeak ezarritako epean ez dela alegaziorik aurkeztu.

Ikusirik horren gainean Udalaren idazkariak egin duen informea, Udalak erabaki du aho batez Auritzen Batzarre Erakundea biziberritzeko eta haren funtzionamendua arautzeko Ordenantza onestea. Hona hemen:

AURITZEN BATZARRE ERAKUNDEA BIZIBERRITZEKO ETA HAREN FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZA

Atarikoa

Antzinako garaietatik XX. mendean bete-betean sartu arte Batzarrea herriko gobernurako erakunde garrantzitsua izan da. Udal bilkuretako akten liburuetan agerienez, Udalbatzaren bilkurak (zinegotziak, alkatea eta sindikoak) eta Batzarrearen bilkurak bereizten ziren.

Herritarrek Udalaren kudeaketan parte hartzeko bitarteko nagusia Batzarrea zen.

Gaur egun, dituen berezitasun administratiboengatik, parte hartzeko modu hori Aezkoan eta Baztanen bakarrik erabiltzen da, eta udalek beren ordenantzetan jasorik dute. Halaber, esan genezake kontzeju eta udal irekiek ere badutela figura hori.

Herritarrek udal bizitzari ematen dioten arreta areagotu beharra dago. Herritarrak ikusle hutsak diren gizarte mota baztertu nahi dugu, non herritarrek lau urtean behin botoa eman besterik ez duten egiten eta botereari esku luzea ematen zaion, erabiltzen dituen gaiak gizartearen kontrolpean jarri gabe. Antzina-antzinatik gurea dugun erakunde hori biziberrituz demokrazia esku-hartzaile, malgu eta egiazkoa lortuko delakoan, ordenantza hau egin eta onetsi da, erakundea egungo garaietara egokituz.

Lehen titulua: Batzarre motak

1. artikulua. *Batzarreak bi motatakoak izanen dira:*

a) *Informazio batzarreak: deialdian zehazten diren kontu, aurrekontu edo proiektuen berri emanen da.*

b) Aholku batzarreak: parte-hartzaileei gai jakinen gaineko iritzia azaltzeko eskatuko zaie. Bozketen emaitzak aholku gisa hartuko dira eta ez dira inoiz lotesleak izanen Udalak hartu behar dituen erabakietarako.

2. artikulua. Batzarreak ez ditu inola ere bereganatuko indarra duen legeriak Udalari ematen dizkion eskubideak, betebeharrak, eginkizunak eta eskumenak.

Bigarren titulua: Batzarrerako deiak

3. artikulua. Aurizko alkateari edo hura legez ordezkatzeko duen pertsonari dagokio Batzarrerako deia egitea.

4. artikulua. Alkateak edo haren ordezkoak Batzarrerako deia egin behar du, gutxienez 48 ordu lehenago eta aztergaien zerrenda erantsita, Udaleko kideen gehiengo soilak hala eskatuz gero.

5. artikulua. Alkateak Batzarrerako deia egin behar du erroldatutako biztanleen %20k edo gehiagok hala eskatuz gero, 20 egun igaro baino lehen, eta eskatzaileek proposaturiko aztergaien zerrenda jarriko du.

6. artikulua. Deialdia udalerriko etxe guztietara banatuko da eta Udaletxeko iragarki oholean jarriko da.

7. artikulua. Batzarrerako deialdiko aztergaien zerrendan inoiz ez da kontu pertsonalik jasoko. Aurizko erkidego osoari eragiten dioten gaiak eztabaidatuko dira bakar-bakarrik. Horrela erakundearen garbitasunari eutsi nahi zaio.

Hirugarren titulua: Batzarrearen maiztasuna

8. artikulua. Batzarrea urtean behin egingen da gutxienez, aurreko urteko kontuak azaldu eta aurrekontuak aurkezteko. Informazio batzarrea izanen da berariaz. Bi gai horiei buruzko alegazioak indarra duen legerian ezarritako bide arruntetatik egin ahalko dira.

Laugarren titulua: Nortzuek osatzen duten batzarrea eta nola erabiltzen den eskubidea

9. artikulua. Udalerrian erroldaturik dauden adin nagusiko bizilagunek osatuko dute Batzarrea.

10. artikulua. Norberak joan behar du Batzarrera eta ezin da ordezkorik bidali. Botoa Batzarrean bertan emanen da, inoiz ez da postaz bidaliko. Bozketa eskua jasoz egin daiteke edo sekretua izan daiteke, lehendakariak egoki deritzona.

Bosgarren titulua: Batzarrea egitea

11. artikulua. Batzarrea deialdi bakarrean eginen da, deialdi ofizialean ezarritako orduan.

12. artikulua. Batzarrea Aurizko Udaletxean eginen da, edo bestela lehendakariak adierazten duen leku publikoan. Aurizko alkatea edo haren ordezkoa izanen da buru.

Seigarren titulua: Batzarreko lehendakariaren eginkizunak

13. artikulua. Alkatea edo hura legez ordezkatzeko duen pertsona izanen da Batzarreko lehendakaria.

14. artikulua. Ondokoak dira lehendakariaren eginkizunak:

- Aztergaien zerrendako puntuak aurkeztea.
- Bizilagunei hitza ematea modu ordenatuan.
- Bozketak zuzentzea, behar denean.

Zazpigarren titulua: Bozketak

15. artikulua. Betiere bozketak eskua jasoz eginen dira, lehendakariak zehazten duen moduan. Lehendakariak egokitzat jotzen badu, bozketa sekretua izanen da.

16. artikulua. Bozketa eskua jasoz egiten denean, parte-hartzaile guztiek beren botoaren zentzua aktan agerrarazteko eskubidea izanen dute.

Zortzigarren titulua: Aktak eta batzarreen liburua

17. artikulua. Lehendakariak izendatzen duen pertsonak eginen ditu batzarreetako aktak. Udaleko idazkariak eginkizun hori bete dezake.

18. artikulua. Batzarrearen amaieran akta irakurriko da, zuzenketak proposatu ahal izan daitezen, eta jarraian onetsiko da.

19. artikulua. Aktak Udalaren zigilua duten orrietara transkribatuko dira eta orriei zenbaki bana jarrita akten liburua osatuko da. Liburu hori Udaletxean gordeko da. Aktak Aurizko Udalaren orri ofizialetan idatziko dira, lehendakariak eta idazkariak sinatuko dituzte eta Udalaren zigilua jarriko zaie.

20. artikulua. Aktetan ondokoak jasoko dira gutxienez:

- Parte-hartzaile guztien izenak.

-Emandako informazioa.

-Parte-hartzaileek azaldutako iritziak.

-Bozketen emaitza, eta botoaren zentzua, parte-hartzailearen batek hori agerrarazi nahi badu.

21. artikulua. Aktak jendaurrekoak izanen dira uneoro, eta haiek egin ondoren kopia bana emanen zaie Batzarrean izan direnei.

22. artikulua. Akta hobeki egiteko, idazkariak grabagailua edo egokitzaletan jotzen dituen baliabideak erabili ahal izanen ditu. Parte-hartzaileek ere Batzarrearen bilkura grabatu ahal izanen dute.

Xedapen iragankorra.-Ordenantza honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

5.- IKASKETAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK

Udalak erabaki du aho batez 2006-2007 ikasturtean ondoren aipatzen diren herriko bizilagunek egindako ikasketengatik diru-laguntzak ematea:

Iosune Juandeaburre Pedroarena (Erizaintzako 1.).....	583,74 €
Maidier Othegui Iriarte (Kimikako Lizentziatura).....	583,74 €
Maite Astiz Larralde (Arte Ederretako 4.).....	583, 74 €

6.- BAKE EPAILE ORDEZKOAREN HAUTAKETA

Udalak erabaki du aho batez Aurizko Bake Epailaren ordezkoa Isabel Azanza Burusco a. izendatzea.

7.- UDAL PLANAREN ALDAKETAREN BEHIN BETIKO ONESPENA, LA CADENA ALDERDIAN

Idazkariak jakinarazi du gai zerrendan behin betiko onespena aipatzen dela baina akats bat dela, eta aldaketaren behin behineko onespena egin behar dela, behin betikoa Nafarroako Gobernuak egin behar baitu.

Udala jakinaren gainean gelditu da eta La Cadena alderdiko Udal Planaren aldaketa behin behineko onetsi du.

Idazkariak erran du La Cadena Elkarte gastronomikoak sustatu duen Udal Planaren aldaketa jendaurren egon den bitartean ez dela alegaziorik aurkeztu.

Udalak erabaki du aho batez La Cadena Elkarte gastronomikoak sustatu duen Udal Planaren aldaketa, 5 pligonoko 210 lurzatiari dagokiona, behin behineko onestea.

8.- HERRILURRETAN ETA LURZATI MUGAKIDEETAN BELAR BOLEN BAZKALEKUAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN BEHIN BETIKO ONESPENA

Idazkariak jakinarazi du herrilurretan eta lurzati mugakideetan belar bolen bazkalekuak jartzea arautzen duen ordenantza jendaurren egon den bitartean alegazio bat aurkeztu

duela Imanol Dufur de Ynchaustik Aurizko beste bizilagun batzuekin batera. Alegazio horretan eskatzen dute 5. artikulua zati bat kentzea, hots, "ibai-erreketatik eta bideetatik zenbateko distantziara jarri behar diren" dioen zatia, hori jabeen ardura delako.

Udalak erabaki du aho batez:

1.- Imanol Dufur de Ynchaustik eta Aurizko beste bizilagun batzuk aurkeztu duten alegazioa, Ordenantzaren 5. artikuluari dagokiona, onestea.

2.- Herrilurretan eta lurzati mugakideetan belar bolen bazkalekuak jartzea arautzen duen ordenantza behin betiko onestea. Hona hemen:

HERRILURRETAN ETA LURZATI MUGAKIDEETAN BELAR BOLEN BAZKALEKUAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Atarikoa: Aurizko Udalak, kontuan izanik belar boleak kalte ekologiko handia egiten dutela, inguruko zuhaitzi eta akuiferoetan bereziki, eta zuhaitzak ihartzen dituztela, honako ordenantza hau onetsi du.

1. artikulua. Ordenantza honen xedea da arauak ezartzea belar bolen bazkalekuak paratzeko herrilurretan, Udalak errentan emandako belardietan eta herrilurrekin mugakideak diren finketan.

2. artikulua. Debekaturik dago herrilurretan belar bolen bazkalekuak jartzea, larreetan izan ezik.

3. artikulua. Larreetan belar bolen bazkalekuak baso edo zuhaitzietatik 100 metrora, ibai-erreketatik 100 metrora eta bideetatik 50 metrora jarri behar dira, gutxienez.

4. artikulua. Udalak errentan emandako belardietan belar bolen bazkalekuak baso edo zuhaitzietatik 100 metrora, ibai-erreketatik 100 metrora eta bideetatik 50 metrora jarri behar dira, gutxienez.

5. artikulua. Herrilurrekin mugakide diren finka pribatuetan, belar bolen bazkalekuak baso edo zuhaitzietatik 100 metrora jarriko dira gutxienez.

6. artikulua. Araudi hau ez betetzeagatik 300 euroko isuna ezarriko da eta arau-hausleak ordaindu beharko ditu eragindako kalte eta galerak.

Isunaren zenbatekoa urtero Nafarroako KPIa adina igoko da, Aurizko Udalak bere aurrekontuetan zenbateko hori aldatzen ez duen bitartean.

AZKEN XEDAPENAK

Bakarra. -Ordenantza honek behin betiko onespena Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

9.- OBRA BAIMENAK EMATEAGATIK KOBRATUKO DENA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN HASIERAKO ONESPENA

Idazkariak jakinarazi du gai honen izenak Obra baimenak emateagatik dirua kobratzea arautzen duen Ordenantza bat onartu nahi dela pentsarazi ahal duela, baina badirudiela hori ez dela komenigarria, administrazio lana bikoiztuko lukeelako eta egokiago baita Hirigintzako jarduerak tramitatzeko tasak arautzen dituen ordenantzaren V. epigrafea aldatzea, modu horretan lortu nahi diren helburuak erdiesteko.

Udalak erabaki du aho batez Hirigintzako jarduerak tramitatzeko tasak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa onestea; hortaz, V. epigrafearen azkeneko zatia honakoa izango da:

“Hirigintzako kontsultak: Hirigintzako kontsultak egiteagatik Udalak kontrataturiko teknikariek egindako txostenen kostu erreala”

Tramitazioaren Izapidea egiteagatik sortutako kostu erreala, Hirigintzako kontsultak egiteagatik Udalak kontrataturiko teknikariek egindako txostenen kostu erreala eta antzeko zenbatekoa kontsulta egiteagatik sortutako gastu administratiboen truke.

Eskatutako Baimenen Obra guztiak egiten ez diren kasuetan edo beranduago eskatzen diren Baimenetan sartzen direnean hirigintzako kontsultak izango balira kontsideratuko dira.

10.- ALKATEAREN EBAZPENAREN BERRESPENA: PIRINIOKO LAP-RI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK ONETSI ETA NAFARROAKO GOBERNURA IGORTZEKO.

Alkateak jakinarazi du 2007ko urriaren 24an ebazpena eman zuela Pirinioko LAPari jarritako alegazioak onetsi eta Nafarroako Gobernura igortzeko eta urgentziazko arrazoiak direla kausa egin zuela hori. Alegazio horien edukia Udal honek lehenago aurkeztutakoen antzekoa dela, baina oraingoan Pirinioko toki entitateekin batera aurkeztu direla.

Udalak erabaki du aho batez alkateak 2007ko urriaren 24an eman zuen ebazpena berrestea; horren bidez Pirinioko LAPari jarritako alegazioak onetsi eta Nafarroako Gobernura igortzea erabaki zen. Alegazio horiek guztiak bilkura honetako espedientean daude.

11.-AURIZKO DIAGNOSI PLANA

Udalak erabaki du aho batez aurreko udalbatzak Delta enpresari eskatu zion Udalaren Antolakuntzaren Diagnostikoa jakintzat ematea eta uste du diagnostiko horrek ez duela isladatzen horrelako azterketa batek eman beharko lukeena eta ez zaiola egokia iruditzen erabilitako metodologia ezta emaitza ere, ez baitu balio herriko administrazio zerbitzuak berrantolatzeke.

12.- 2007ko AURREKONTUAREN ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA

Udalak erabaki du aho batez 2007ko aurrekontuari ondoren aipatzen den aldaketa egitea:

KONTU-SAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 431 78001	KANALEBURUAN LAGUNTZAK	ERAIKITZEKO 4.507,59

ALDAKETAK GUZTIRA	4.507,59
--------------------------	-----------------

FINANTZIAZIO ITURRIAK

KONTU-SAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 870	DIRUZAINZAREN GELDIKINA GASTU OROKORRETARAKO	4.507,59

FINANTZIAZIO ITURRIAK GUZTIRA	4.507,59
--------------------------------------	-----------------

DIRUZAINZAREN GELDIKINAREN KARGURA	4.507,59
---	-----------------

13.-DIRUZAINZAREN MAILEGUA

Udalak erabaki du aho batez Nafarroako Kutzari diruzaintzako mailegua eskatzea, 50.000 eurokoa, urte baterako, Euribor gehi 0,40ko interesekoa eta alkateari, Jose Irigaray Gil jaunari, ahalmena ematea eskaera gauzatzeko, dagokion poliza sinatzeko eta mailegua hartzeko beharreko izapide guztiak egiteko.

14.- 2008ko LANGABETUEN PLANA

Udalak 2008ko langabetuen Plana onetsi du aho batez.

15.- GESTIÓN HOTELERA ETXENIKE S. L.-k 2007KO IRAILAREN 7KO EBAZPENAREN AURKA JARRITAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIERREKURTSOA. EBAZPEN HORREN BIDEZ SAN NIKOLAS KARRIKAKO (VILLA ELENA) 20, 22 ETA 24 ZENBAKIA DUTEN ETXEAK BOTATZEKO BAIMENA BERTAN BEHERA UTZI ZEN.

Ikusirik Alkateak 2007ko irailaren 7an eman zuen ebazpenaren aurka, San Nikolas karrikako (Villa Elena) 20, 22 eta 24 zenbakia duten etxeak botatzeko baimena deusezten zuena, Gestion Hotelera Etxenike S.L.-k jarritako administrazioarekiko auzierrekurtsoa, Udalak erabaki du aho batez:

- 1.- Auzian demandatu gisa pertsonatzea.
- 2.- Udalaren abokatu Maria Asunción Galar Mutuberria a. Izendatzea, Iruñeko Abokatuen Elkargoko 1.209 zenbakidun kidea, eta prokuradorea Javier Echaurren Ozcoidi j. izendatzea, Iruñeko Prokuradoreen Elkargoko kidea.
- 3.- Aurizko alkateari, José Irigaray Gil j., ahalmena ematea ahalordeak egilesteko, eta baita Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz beharrezkoak diren ebazpenak eman eta ekintzak egiteko, Justizia Auzitegien aurrean Udalaren eskubideak defendatzeko.
- 4.- Espedientea Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegira igortzea.

16.- BESTERIK

Oihana antolatzekeo plana

Alkateak jakinarazi du Aurizko Oihanak antolatzekeo Plana egina dagoela, baina badaudela zehaztu gabeko gauza batzuk, Nafarroako Gobernua eta Udala ados

jartzen ez baitira, eta horietaz arduratzen ari dela Izko jaunarekin batera. Plan hori laister aurkeztuko da osoko bilkuran onesteko. Udala jakinaren gainean gelditu da.

Aldudeko BIL.

Alkateak jakinarazi du Aldudeko B.I.L.eko Batzordea osatu dela eta toki entitateen ordezkariak hauek direla: Baztan, Erroibar eta Aurizko alkateak eta Eugiko Kontzejuko presidentea. Batzorde horrek B.I.L. gauzatzeko osatu dela eta badagoela bileren egutegi bat eta hurrengoa martxoan egingo dela.

Pirinioa garatzeko proposamena

Alkateak jakinarazi du Pirinioko Hautetsien Batzordeak bilera egin zuela eta adierazi zutela ez daudela ados Pirinioaren Garapen Planarekin eta Nafarroako aurrekontuei emendakinak aurkeztuko dizkietela eta eskatu zaiela testua guztiok sinatzea. Udala jakinaren gainean gelditu da.

Pirinioaz gaindiko kapazitate handiko errepedea

Alkateak aipatu du gaia gure herrirako garrantzi handikoa denez, 2008ko martxotik aurrera, Pirinio Atlantiarren Departamenduaren hauteskundeen ondoren, Herri Lanetako Kontseilariari bilera eskatu behar ziola, Udalaren jarrera azaltzeko, informazioa eskatzeko eta gonbidatzeko hitzaldi informagarriak ematera, eta gauza bera egiteko asmoa zuela Leia elkartearekin.

Baina atzo, 19:30ean, Herri Lanetako Kontseilaritzatik deitu ziotela esateko gaur bilera bat egin behar zela eta konbidatua zegoela. Bilera hori gaur izan da goizeko 9.00etan eta bertan izan dira Kontseilaria, Herri Lanetako Zuzendari Nagusia, Echavarri j., eta errepede horrek ukituko lituzkeen udalerrietako agintariak.

Alkateak bilera horren gaineko informazioa eman du. Bertaratu zirenak: Agoitz, Erroibar, Noain, Auritz-Burguete, Urrotz, Lizoain, Izagaondoa, Luzaide –Valcarlos eta Arangurengo alkateak eta Aezkoa eta Zaraitzuko Batzarre Nagusietako presidenteak. Bileran Kontseilariak jakinarazi zien orain dela gutxi bera eta Gobernuak presidenteordea, Miranda j., bilera izan zutela Baionan Lasserre presidentearekin, eta honek erran ziela bi administrazioen artean zegoen hitzarmena hautsi behar zutela, hiru arrazoiengatik: Frantziako Gobernuak lehentasuna eman behar dielako trenbidez eta itsasoz egiten diren garraioei, Nafarroa Beherean aurkako iritzia nagusi dela eta proiektuaren aurka gero eta Udal gehiago daudela, eta gainera Akitaniako herrialdea aurka dagoela. Jakinarazi zuen baita Nafarroako Gobernuaren proiektuak bi helburu zituela, batetik Akitaniarako errepedeak hobetzea eta Pirinioko bailarak Iruñera hurbiltzea. Erran zuen lanean jarraituko dutela bigarren helburua lortzeko, eta egindako ikerketatik aprobetxatu ahal dena erabiliko dutela Errepideen Hirugarren Planan sartzeko, eta pena handia zuela ez zelako lehenengo helburua lortuko.

Ondoren galderen txanda iritsi zen eta Erroibarko alkateak galdetu zuen ea noiz egingo diren tunelak, eta Kontseilariak erantzun zuen ahal bada Errepideen Hirugarren Planean sartuko direla.

Urrozko alkateak galdetu zuen zer den egingo dena eta Kontseilariak erantzun zuen dauden errepedeak egokituko direla eta zenbait zati hobetu.

Zaraitzuko Batzarreko presidenteak galdetu zuen alternatibaren bat aztertzen ari diren eta kontseilariak erantzun zion Sarkozy presidentearen eta Akitaniako Eskualdearen ezezkoaren aurrean ezin dela alternatibarik planteatu.

Aezkoako Batzarre Nagusiko presidentek galdetu zuen zer den egindako ikerketatik balio duena eta dirurik egongo den hori egiteko eta ea "ezetza" behin betikoa den. Kontseilariak erantzun zion ziur aski bi tunel egingo direla, badagoela horretarako dirua eta politika mailan ez dagoela behin betiko ezetzik, baina oraingoa badela epe motzekoa eta epe ertainekoa, baina horrek ez duela erran nahi hemendik urte batzuetara (25 urte) gaia berrartu ezin denik.

Aurizko alkateak aipatu zuen ez zaiola iruditzen proiektuaren helburuak Kontseilariak aipatutakoak zirenik, errepide hori nazioarteko garraioarentzako pasabidea besterik ez litzatekelako izango, L.A.P.-etan isladatzen den moduan; bera egon dela beti kapazitate handiko errepidearen aurka eta asko poztu dela berria jakitean; azkenik galdetu zuen nola geldituko den tentsio altuko linearen afera. Kontseilariak erantzun zion ezagutzen zuela Aurizko alkatearen jarrera, tentsio altuko linearena ez dagokiola bere Departamenduari baizik eta Industria Departamenduari eta nazioarteko trafikoa konpondu ahalko litzatekela merkantziarako peajea jarriz, eta hori bazegoela aurreikusita.

Luzaideko alkateak dio beharrezkoa dela Pirinioaren garapen orokorra lortzeko Laneko Plan bat martxan jartzea, eta horretan errepideen afera garrantzizko gaia iruditzen zaiola eta joan den astean Industria Departamenduko Zuzendariak aipatu zuela tentsio altuko linea Luzaidetik pasatuko dela.

Kontseilariak erran zuen bilera honen helburua zela alkateei berria jakinaraztea, eta ez jakitea berria prentsaren bidez, eta hori bertaratu guztiek eskertu zioten.

Azkenik alkateak dio konstarazi nahi duela bilera oso giro onean egin zela.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

Tokiko Ekintza Taldea.

Alkateak jakinarazi du aztertzen ari direla Tokiko Ekintza Talde bat sortzea Cederna Garalurren ordez, egoera ahuleko landa eskualdeetara Europatik datozen fondoak hobeki aprobetxatu ahal izateko, eta alkatearen ebazpenaren bidez Udalak ekimen horrekin bat egin duela.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

Mugaz gaindiko elkarlana

Alkateak Lindux Orreaga Mugaz gaindiko elkarlanerako Erakundeak izandako bileraren gaineko informazioa eman du.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

Hirigintza Plana

Alkateak Udal Planaren aldaketa eta I.K.O.-k dakarren P.E.R.I.-ren prestaketa prestatzen ari direnek egin dituzten proposamenei buruzko informazioa eman du. Aipatu du I.K.O.-ri egindako alegazioen erantzuna Bianako Printzea Erakundeak igortzen duenean bilera egiteko asmoa duela Nafarroako Gobernuko Hirigintza Zerbitzukoekin.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

Aetzubi.

Alkateak Aetzubin egin diren lanen gaineko informazioa eman du eta bukatuak daudela erran du.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

Amma Ibañeta.

Miren Oyarbidek jakinarazi du bilera izan zela Amma Ibañetan eta horretan aipatu zutela sozietatearen akzioak beste sozietate bati pasatuko zaizkiola, Amma taldeko egoitzen kudeaketa hobetzeko.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

Saharako bidaiia.

Oroz jk. orain dela gutxi Saharara egindako bidaiaren gaineko informazioa eman du eta aipatu du badagoela aukera Nafarroako Kutzak duen *Zuk aukeratu*, *Zuk erabaki* programaren bidez Castroko Zentroari laguntza emateko (Asmarako Hezkuntza Bereziko Zentroa).

Udalak, gaiaren urgentzia aitortu ondoren, erabaki du aho batez Nafarroako Kutzako *Zuk aukeratu*, *Zuk erabaki* programaren bidez Castroko Zentroari (Asmarako Hezkuntza Bereziko Zentroa) laguntza ematea.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

Oihan enkantearen emaitza

Alkateak jakinarazi du 2007ko urriaren 30ean egin zen oihan enkantean 30.994,63 eurotan baloratuak zeuden aprobetxamenduak 35.716 eurotan saldu zirela.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

2007ko nekazaritza azpiegituren planaren adjudikazioa

Alkateak jakinarazi du Aurizko nekazaritza azpiegituren planean aurreikusita zeuden lanak Mendi Lan enpresari adjudikatu zaizkiola 10.414,42 eurotan eta anak nola agiten ari diren azaldu du.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

Euskara Zerbitzua

Othegui jk. aipatu du aztertzen ari dela Pirinio osorako Euskara Zerbitzua osatzeko aukera, zerbitzuaren kudeaketa hobetzeko.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

Notaritza Zerbitzua

Othegui jk. aipatu du Agoizko Notarioa prest dagoela Auritzera noizbehinka etortzeko eta leku egoki bat behar duela jendea atenditzeko.

Udalak adierazi du proposamena oso egokia iruditzen zaiola eta Agoizko Notarioarekin harremanetan jartzea erabaki da gaia zehazteko.

Ingurutxoaren jantzien erakusketa

Udalak erabaki du bizilagunei bandoa igortzea jakinarazteko igandean, 12:00etatik 14:00etara bilkura aretoa zabalik egongo dela Aurizko Ingurutxoaren jantzien erakusketa bisitatzeko.

Eta horrenbestez, bilera amaitu da eta akta hauxe egin dut, alkatearen oniritziarekin, bertan azertu eta erabaki direnak idatziz jasota gera daitezen.